**Sindikatuetan ere, aniztasuna.** Europar Batzordearen GNDarekin bat egiten du UGT-k, aukera ezin galduzko iritzi dio, eta guztiz uztargarritzat jo hazkunde ekonomikoa eta ingurumena zaintzea[7]. CCOO ere alde agertu izan da, baina eskualde eta langileentzat bidezkoa izan behar duela nabarmenduz[8]. Euskal gehiengo sindikalak harago joan gura du. ELAren arabera, gakoa ez da pixka bat edo pixka bat baino gutxiago hazten garen; mantratzat jo du hazkundea, eta ekonomia-eredua, aberastasunaren banaketa eta iraunkortasuna dira haren ekintzaren ardatzak[9]. LABen iritziz, larrialdi klimatikoari ezin zaio aurre egin sistema kapitalistaren baitan: "Ez dago kapitalismo berderik, ez dago kapitalismo jasangarririk, sistemaren aurpegi zuriketa baino. Garapen ereduaren aldaketa erradikala behar dugu, lan produktibo eta erreproduktibo guztiak berrikusiko dituena, langileoi bizitza duin bat eskainiko diguna"[10].

**Deshazkundea, ildo ausarta**. Errotiko aldaketaren premiaz ohartarazten digute haren aldekoek. Deshazkunde iraunkorra honetan datza: "produkzio -eta kontsumo- mailen murrizketa ekitatiboa, zeinak giza ongizatea eta baldintza ekologikoen hobekuntza ahalbidetuko dituen bai maila lokalean bai globalean, bai eta epe laburrean zein luzean ere" (Schneider et al., 2010). Ez dago batere sobera Iker Etxanoren zehaztapena (2017), eranstean desazkundearen pisua

### Gizateriak energia eta lehengai gutxiagorekin bizi beharko du

### Euskal Herriko ezkerrak erabaki asko hartu beharko ditu, une ugaritan zirt ala zart egin beharko du

### Planetaren mugak are gehiago ez gainditzeko, energia eta material gutxiago kontsumitu beharra dago

Iparraldeko herrialdeek hartu behar dutela beren gain; izan ere, Hegoaldeko herrialde asko ongizate material handiagoaren beharretan daude oraindik.

Errejonen inguruko Tejero eta Santiago (2019) GNDaren pentsalariek aitortzen dute ez dela iraunkortasunik izango deshazkunderik gabe, baina oraingoz horri ekitea ezinezkotzat jotzen dute, gizarteak ulertuko ez duelakoan. Bada, lehenbailehen ekin beharko zaio limurtze langintzari. Agian ez da horren zaila ulertaraztea Euskal Herrian Peruko piperrak eta Hegoafrikako laranjak jatea ez dela bideragarria izango. Agian ez da horren zaila izango jendeak barneratzea nahiz eta etorkizunean gutxiago bidaiatuko dugun hegazkinez, elkarrekin egoteko tarte handiagoa izango dugula. Agian lanordu gutxiago izatearen onurez ohartuko gara, eta uztailean Alpeetara eskiatzera joango ez garen arren, kontsumismoan oinarrituta ez dagoen aisialdiaz gozatzen berrikasiko dugu. Gainera, oso onartuta dago BPGak ez duela gizakion ongizatea adierazteko balio, Europako Batzorde Ekonomiko eta Soziala ere bat dator horretan.

**Proposamen askotan bat etorriko gara**, GNDarenak zein DAenak izan. Litekeena da egunetik egunerako borroka eta erabakien arabera moldatzen joatea etorkizun sozioekonomikoa; eredu eta programen nahasketak izango dira, ziur aski ez da proposamen hegemonikorik izango. Bide horretan, Euskal Herriko ezkerrak erabaki asko hartu beharko ditu, une ugaritan zirt ala zart egin beharko du. Nire iritziz, GNDaren aldeko ausartenek nahiz DAren aldekoek proposatuta, babestu eta bultzatu beharreko neurriak izango dira ildo hauetan doazenak: lanaldia, kontsumoa eta mugikortasuna murriztu, etxebiziztak klimatizatu, desberdintasunaren arrakala txikitu, azpiegiturak trantsizio ekologikora moldatu, ekoizpen sistema eta kontsumoa birtokiratu.

Tejerok eta Santiagok (2019) aitortzen dute beharrezkoak direla gizartearen aldaketa sakonak, premisa limurtzaile baten pean: gutxiagorekin biziko gara, bizimodu ona izango dugu. Ikusten dugunez, bat datoz DAren beharrarekin. Ibilbide orria atzeratu egiten dute, baina gehiengoa erakarri nahi denez, hartu beharreko neurriak gibeleratu egin behar direla argudiatzen dute.

**GNDaren alde batzuk baztertu** beharrekoak direlakoan nago. Europako Itun

5 https://www.15-15-15.org/webzine/2018/09/22/mikel-otero-eh-bildu-debemos-tener-el-control-sobre-las-decisiones-energeticas-en-euskal-herria/
6 http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20130214/387894/es/Un-investigador-aboga-una-reduccion-paulatina-consumo
7 https://www.corresponsables.com/actualidad/ods12-ugt-impulsa-compromiso-economia-circular-visita-thecircularlab
8 https://industria.ccoo.es/noticia:411760--CCOO_Industria_busca_una_Transicion_Justa_en_los_acuerdos_finales_de_las_COP25_basada_en_el_empleo_de_calidad_y_los_derechos_de_los_trabajadores&opc_id=6e5a82e61f0a4905471f709939608d23
9 https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/crisis-economica/detalle/2995202/ela--el-sindicato-cree-discutible-estamos-crecimiento-no/
10 http://www.lab.eus/eu/arloak/ingurumena/413-krisi-klimatikoa/9270-larrialdi-klimatikoa

Berdeak jasotzen du bidezko trantsizioa, integratzailea, ekonomia zirkularrekoa, non birziklapena, aprobetxamendua, konponketa eta lehengaien murrizketa funtsezkoak izango diren. Batzuetan jasotzen ez dena jasotzen dena baino garrantzitsuagoa izaten da. Ildo horretan, ez da ezer aipatzen ekoizpena eta kontsumoa murrizteaz. Eta erne horrekin, energia iturri fosiletatik berriztagarrietara aldatzea ez baita nahikoa izango (Capellán-Pérez eta al, 2019).

Europako GNDak ez dio ezer energi iturrien taxonomiaz, baina Estatuek adostuak dituzte energia mota bat iraunkorra den ala ez ebazteko irizpideak. Aurreakordio horretan ateak irekitzen zaizkio energia nuklearrari eta gas naturalari. Europako Batzordea GNDarekin lehen urratsak ematen hasi bezain laster tamaina horretako zaplastekoa emateak balio diezagula Itun Berdearen arriskuez ohartzeko.

GNDak emisioak murrizteaz dihardu helburu gisa, baina krisi ekologikoa ipar aldetik hegoaldera kanporatzeko arriskua itzela da. Karbono neutraltasunerantz joateak aldi berean mineralak kontrolatzeko are borroka gune handiagoa bilaka dezake Afrika. Hortxe dugu gakoetariko bat. Etorkizun hurbilean ezagutzan oinarritutako balio erantsi handiko lanpostu ugari izan nahi dugu planetako ipar aldeko herrialde industrializatuenok, Euskal Herrian ere bai, baina lehengai ugari herrialde txiroetan erauzten jarraitzea da asmoa, baita gure hondakinak hemendik at eramatea ere.

Egungo ekonomia eredua materialen fluxu ikaragarrian dago oinarrituta, zeinarentzat ez dagoen BPGaren hazkundetik banantzerik, eta horrek nazioarteko aztarna materiala %6 haztea dakar, BPGa %10 hazten denean (Wiedmann et al, 2015). BPGa hazi ahala, mineralen erauzketa handitzen da, meatzeak hedatu, hondakinak areagotu. Hortaz, petrolio, gas, kobre, litio, platino… gutxiago kontsumitu behar ditugu.

**Energia iturri fosiletatik berriztagarrietara aldatzea ez da nahikoa izango.**

**GNDak emisioak murrizteaz dihardu helburu gisa, baina krisi ekologikoa ipar aldetik hegoaldera kanporatzeko arriskua itzela da.**

**Aztarna ekologiko itzela dugu, lurraldea ziztu bizian ari gara artifizialtzen**

**Epelkerietarako berandu.** Klima larrialdiak ez digu atzerapenetarako baimenik emango. Neurriak beharrezkoak ez ezik, premiazkoak ere badira. Zenbat eta gehiago aritu luzamendutan, orduan eta handiagoak izango dira egin beharreko aldaketak. Esate baterako, bizpahiru hamarkada ematen baditugu automobil-parkea elektrikora aldatzen, aldi berean mugikortasun eskaria kudeatu barik, gureak egin du. COP25 goi bileraren aurretik Nazio Batuek txosten bat argitaratu zuten, non beharrezkotzat jotzen zen hamarkada honetan urtero %7,6 jaitsi behar direla guztizko emisioak. Hori lortzeko, erabaki sendoak hartu beharra dago, orain. Larritasunak aldaketa handiak eskatzen ditu, mozorro eta txepelkeriarik ez.

STOP erraldoia erakutsi digu Ama Lurrak, eta aldaketa sakonen garaia heldu zaigu. Planetaren mugak are gehiago ez gainditzeko, energia eta material gutxiago kontsumitu beharra dago. Ekonomia beste era batean antolatu, mugikortasun eskaria kudeatu, hiri eredua zein lurralde antolamendua eraldatu, garraio, eraikuntza eta elikadura ereduak aldatzea ezinbesteko dugu. Aztarna ekologiko itzela dugu, lurraldea ziztu bizian ari gara artifizialtzen. Eginkizunean gobernuek nahitaezko funtzioa izango dutelakoan nago, besteak beste aldaketek eragindako kalteak konpentsatzeko eta aberastasuna birbanatzeko. Hori behar den lez egin dadin, nahitaezkoak dira sindikatuen esku-hartzea eta presioa. Azkarragarekin (2017) ados, trantsizio justu eta ekologikoak proiektu erakargarria eskain diezaioke gehiengoari; hau da, bizitza ona, baita bizi kalitate hobea ere, muga biofisikoen barruan.

Bideragarria da etorkizuneko bizimodua duina izatea, material gutxiagorekin, xumeagoa, eta aisialdiari dagokionez oparoagoa. Agian ez dugu zertan tematu eztabaidatzen BPGak hazi ala txikitu behar duen, ados baldin bagaude esandako arloetan murriztu beharra dagoela.

Eragile soziopolitikoek ihes egiten diete etiketei, zigilu itxiei. Sarritan ez dute korronte batean etiketatuak izan nahi, batez ere bertsio ezberdinak badaude horren pean. Canaleta adituak dio alderdiek zenbat eta gehiago lerrokatu, gehiago galtzen dutela[11]. Tira bada, eragile oro, ez gaitezen lerrokatu nahi ez badugu; baina izan dezagun argi egoeraren larriak zer eskatzen digun eta ekin diezaiogun. Aldaketa dakar, antola dezagun; herritar gehienen aurka eta eliteen pribilegioak iraunarazteko izan ez dadin. ▌

11 https://theobjective.com/further/deconstruimos-los-esloganes-de-los-partidos-para-las-elecciones-del-28a/

# «LABek ekologia babesteko konpromisoarekin jarraituko du»

**ARGITXU DUFAU (1993, Baiona). Azkainen bizi da eta egun medikuntza soziala sektoreko LABeko arduraduna da Ipar Euskal Herrian.**

**Ipar Euskal Herrian mugimendu ekologistak ibilbide luzea du egina. Azalduko zeniguke gaur egun zein den Ipar Euskal Herriko mugimendu ekologistaren argazkia ?**

Mendiz eta itsasoaz inguratuta egonik, Ipar Euskal Herria naturari esker eta haren inguruan garatu da eta hura babestea erronka handia izan da guretzat beti, batzuetan modu inkontzientean izan arren. Larrialdi klimatikoaz jabetu aurretik ere, inolako egituraketarik eduki aurretik ere, Ipar Euskal Herriak sentsibilitate ekologista izan du beti.

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, ekologiaren inguruko lehen egiturak sortu ziren, laborarien sindikalismo alternatiboaren inguruan. Ezin aipatu gabe utzi Jean Pitrau eta ASAM elkartearen sorrera edota Mixel Berhocoirigoin eta ELB eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara.

Azken hamarkadetan, klima-aldaketa gero eta nabarmenagoa bihurtu ahala, globalizazioaren aurkako mugimendua eta mugimendu ekologista egituratuz eta sendotuz joan dira, gaur egun funtsezkoak direlarik hala esparru politikoan nola mugimendu sozialen alorrean.

Ipar Euskal Herria, zorionez, ez da joera horretatik kanpo gelditzen. Asko eta asko dira proiektu eta balore ekologistak bultzatzen eta babesten dituzten mugimendu eta elkarteak, hala nola Larrun Ez Hunki, arrantza adeitsuagoaren aldeko arrantzale-taldeak, Lurzaidia, EHZ festibala, CADE eta abar.

Planteamendu ekologistak praktikan jartzen dira, kontsumoaren bidez gero eta gehiago, askotan haren ahalmena minimizatzeko joera badaukagu ere. AMAP elkarteak eta partaidetzazko janari-dendak lurralde osoan hedatzen ari



dira eta itxaron-zerrendak luzeak dituzte. Tokiko monetaren sorrerak eta ekimen horrek izan duen arrakastak, bereziki, argi erakusten digute Ipar Euskal Herriak bertako produktu osasuntsuak kontsumitu nahi dituela.

Politika-munduan ere berderanzko joera nagusitzen ari da. Europar Parlamentuko azken hauteskundeak Rassemblement Nationalek irabazi bazituen ere, Ipar Euskal Herrian EELV (Europa Ekologia-Berdeak, RPS mugimenduarekin koalizioan) izan zen zerrendarik bozkatuena.

Eta egunotako udal-hauteskundeetako kanpainan, berriz, mila biztanletik gorako udalerritan aurkeztu diren zazpi zerrendarien alde egin dute Berdeek. EH Bai-k, bestalde, «justizia soziala eta Ipar Euskal Herriarentzako trantsizio ekologikoa» defendatzen dituzten hogeita bi zerrendari eman die babesa, prentsa-ohar baten bidez adierazi duenez.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi Bizi! globalizazioaren aurkako mugimendua. 2009an sortu zen kolektibo gisa, Kopenhageko goi-bileraren aurretik, Ipar Euskal Herriko biztanleak berotze globalaren ondorioen inguruan sentsibilizatzeko, eta elkarte-egitura hartu zuen hurrengo urtean. Joan den hamar urtean ekintza ugari antolatu dituzte, eta justizia sozialaren eta ingurumen-justiziaren aldeko esfortzuak areagotzeko eskatu diete bai herritarrei bai hautetsiei. Bizi!-ko ekintzaileen jarduteko eredu gogokoena desobedientzia zibila da. Mundu guztiak gogoratzen ditu «aulkien segalariak» eta «Macronen erretratuen ebasleak».

**Borroka honetan LABek bere ildo propioa garatzeaz gain aliantzak ere ezinbesteko ditu. LABek ze aliantza mota lehenesten ditu larrialdi klimatikoaren aurkako borrokan ?**

LABek ez du inolako aliantzarik lehenesten. Guk defendatzen ditugun balio berak defendatzen dituzten sindikatu, elkarte eta mugimendu guztiekin egiten dugu lan. Justizia soziala eta ingurumen-justizia txanpon beraren bi aldeak dira.

> «Globalizazioaren aurkako mugimendua eta mugimendu ekologista egituratuz eta sendotuz joan dira
>
> Kosta ahala kosta irabaziak eskuratzea beste helbururik ez duen kapitalari aurre egiteko borrokan, bat egitea eta elkarrekin borrokatzea da garaipenerako giltza
>
> Ez da onargarria ekologiaren izenean lan-baldintza kaskarrak eskaintzea»

**Sindikatuak ba al dauka larrialdi klimatikoaren aurkako ildo propiorik? Zer-nolako ekimenak egiten ditu?**

2019ko maiatzaren 1erako, LABek proposamen bat egin zien intersindikalari (oraindik ez gaituzte onartu) eta Bizi!, Aitzina, Etorkinekin eta EBA (Egiazko Berdintasunaren Alde) taldeei, bost ardatz jorratzeko, denok batera: arlo soziala, feminismoa, ekologia, errefuxiatuen harrera eta gazteak. Ardatz bakoitza kolore batez ordezkatuta egongo zen manifestazio-buruan, eta gainerako jende guztia atzetik, denak batera, bakoitzaren kolorea edo bandera axola gabe. Lehendabiziko aldiz, maiatzaren 1eko manifestazio bateratua egin genuen Baionako kaleetan. Azken maiatzaren 1ean gure borrokak eta baloreak izan dira garrantzitsuena, eta ez gure marka sindikala edo zein elkarteko kide garen. Ukaezina da bai ekologiak bai Bizi!-ren presentziak asko lagundu zutela manifestazioa hain jendetsua izan zedin.

Era horretako elkarlanaren azken adibidea abenduaren 15ekoa dugu. Aitzinarekin eta Bizi!-rekin batera supermerkatu bat okupatu genuen. Supermerkatu hori goizeko seietatik gauerdira arte dago zabalik, asteko zazpi egunetan, baina ez daukate langilerik, kutxa automatiko bat baizik. Era honetako ekintzen bidez agerian uzten dugu zer-nolako lotura estua dagoen auzi sozialaren eta ingurumenaren artean.

Izan ere, robot bati «esker» ordutegiak luzatzeak ez die langileei inolako mesederik egiten. Robotizazioaren bidez sortutako irabaziek enpresaburuen eta akziodunen sakelak betetzeko baino ez dute balio, eta langileak presionatzeko tresna izan daitezke: «ez duzu igandean lan egin nahi? Ados, robotak egingo du zure ordez, baina baita astelehenean, asteartean... ere. Merkeago aterako zaigu».

Ekologiaren ikuspegitik egoera ez da hobea. Ordutegi zabalagoa izateak




IPAR HEGOA FUNDAZIOA | CC BY-SA

kontsumoa areagotzea dakar, gehiago ekoiztea eta gauza gehiago botatzea. Nekazaritza intentsiboa garatzea dakar, halaber, baliabide naturalak areago ustiatzea eta salgai gehiago garraiatzea. Eredu horren ondorioak argiak dira: berotegi-efektuko gasen isurpena handitzea eta baliabide naturalak neurri gabe ustiatzea. Logika hori jasanezina da klimak aurkezten digun erronkari aurre egin ahal izateko.

Azken hogei urtean egin dugun bezala, LABek ekologia babesteko konpromisoarekin jarraituko du beste erakunde batzuekin batera. Kosta ahala kosta irabaziak eskuratzea beste helbururik ez duen kapitalari aurre egiteko borrokan, bat egitea eta elkarrekin borrokatzea da garaipenerako giltza.

LABek, sindikatu gisa, gertuko zerbitzu publikoak defendatzen ditu, garraio publikoa erabiltzea, laborarien txikien laborantza... Eta jorratzen ari garen borrokan horiek guztiak ikuspegi ekologista batean txertatuta daude, noski.

**Kutsatzen duten enpresetan ordezkaritza dugu maiz. Ekintza sindikala garatzeko orduan kontraesanik sortzen al zaizue horrelako kasuetan?**

LAB lanbide arteko sindikatua da, Euskal Herriko langileak defendatzen eta antolatzen dituena, haien lantokia edozein dela ere, eta horrek dakartzan kontraesanekin. Alde horretatik, guk ez daukagu arazo larririk, gurean ez baitago industria handirik edo zentral nuklearrik, adibidez. Baina, era berean, hortxe dauzkagu nekazaritza industrialeko produktuak saltzen dituzten supermerkatuak, ikaragarri kutsatzeaz gain munduko beste bazter batzuetako langileak esplotatzen dituzten arropa merkeko dendak edota suediar jatorriko altzarien saltokiak... Izan ere, sistema kapitalistak lanpostu sozialki onartezinak eta ekologikoki ez-jasangarriak sortzen ditu. Eta horrexegatik borrokatzen gara egunero sistema horren aurka.

Bien bitartean, hobe al da sindikaturik gabeko langile horiek esplotatzen uztea, irabazi-goseak bultzatutako akziodun handien eta enpresa handien esku? Erantzuna ezezkoa da, zalantzarik gabe!

Badakigu badirela beste era bateko lanpostuak ere. Lanpostu «berdeak» direlakoak. 2015ean, Bizi!-k aurkeztutako ikerketa batean arabera, Ipar Euskal Herrian 10.000 lanpostu berde sortzeko aukera dago, horietako 3.000 energia berriztagarrien alorrean, 2.000 saltokien birlokalizazioaren eta zirkuitu laburren bidez, 1.300 nekazaritzan eta beste horrenbeste etxebizitzen energia-aurrezpenaren eta isolamendu termikoaren esparruan. Jakina, lanpostu berde horiek sortzearekin batera beharrezkoa izango da erronka horri aurre egiteko gai den kudeaketa soziala aplikatzea, ez baita onargarria ekologiaren izenean lan-baldintza kaskarrak eskaintzea.

XXI. mendea ekosozialismoaren edo sozialismo berdearen mendea izango da, ezinbestean.

# Green New Deal delakoaren 10 oinarriak Europarako

"10 pillars of the Green New Deal for Europe" dokumentuaren euskarazko bertsioa duzue hau. Gaztelerazko bertsiotik[1] itzulita eta era berean bertsio hau ingelesezko jatorrizkoaren[2] itzulpena da. Green New Deal for Europe taldeak 2019ko Uztailean argitaratu zuen dokumentu hau, taldearen laneko dokumentu osoaren sarrera gisa. Green New Deal-aren inguruko eztabaidari ekarpen interesgarria egiten diola iritzita jaso dugu hemen.

Europako Parlamentuko hauteskundeek agindu argia helarazi zieten heldu berri ziren eurodiputatuei: larrialdi klimatiko eta ekologikoei aurre egitea. Milioika pertsona atera ziren Europako kaleetara bidezko trantsizioa exijitze aldera, eta milioika pertsonek alde bozkatu zuten. Europako buruzagiek aukera historikoa daukate Europa eraldatzeko plan handi eta pragmatiko bat aurkezteko, energia berriztagarrietara trantsizioa eginez. Horrez gain, hori guztia errealitate bihurtzeko betebehar historikoa ere badute.

Europan, Estatu Batuetan bezala, plan horri "Green New Deal" deritzogu.

Green New Dealek ondorengo 10 funtsezko oinarri hauek bete ezean, ez da Green New Deal izango.

## 1- ERRONKAREN GARRANTZIARI AURRE EGIN

Zientzia argia da: tenperatura globalaren igoera 1.5 gradura mugatu behar dugu eta gure sistema naturalen kolapsoa gelditu, bestela dena galtzeko arriskuan egongo gara.

Urtero gutxienez Europako BPGren % 5 inbertitzen du energia berriztagarrietara igarotzeko, biodibertsitatearen




galera gelditzeko eta beste ingurumen arazo batzuk lehengoratzeko, baita Europan bizi diren pertsona guztien oparotasuna lortzeko ere.

Europari loratzeko aukera emango dion ekonomia sortuko du, planetaren mugak errespetatuz eta habitat naturalak, airearen garbitasuna eta lurzoruaren osasuna lehengoratuz gure kontinente osoan zehar.

Green New Dealek anbizio hori dakar Europara, Atlantikoaren beste aldera eta XXI. mendera. Ez du soilik eskatzen karbono isurpenak murriztu daitezen. Horrez gain, gure ekoizpen, kontsumo eta harreman sozialen sistemak erabat eraldatzea exijitzen du: materialak ekoizteko erabiltzen ditugun sistemak berriz eratzea: birziklatzea, berrerabiltzea, konpontzea eta zaintzea.

## 2- AKTIBO EZ DAUDEN BALIABIDEEI ERABILPEN PUBLIKOA EMATEA

Green New Dealek dei egiten die erakunde publikoei eraldaketa ekonomiko zein soziala bultzatu dezaten, krisi klimatikoari eta ingurumen krisiari aurre egiteko helburuarekin.

Orain dela mende bat Estatu Batuetan gertatu bezala, Europak denboraldi luze bat darama ezegonkortasun ekonomikoan murgilduta. Alemania bezalako ekonomia oparoetan ere, prekarietateak gora egin du eta etxeetan euren aurrezkiak inbertitze aldera toki emankorra topatzeko borrokan ari dira.

Green New Dealek horri guztiari erantzuna ematen dio.

Jatorrizko New Dealaren kasuan bezala, premisa John Maynard Keynes ekonomistaren lanetik dator. Hark demostratu zuen pizgarri fiskal batek susperraldi ekonomikoa bideratu dezakeela.

Proposamenak pizgarri hori eman dezala eskatu dio Europako Inbertsioen Bankuari eta, horretarako, zailtasunak dituzten Europako aurreztaileei etekina emango dieten bonu berdeak jaulki ditzala.

Beste modu batera esanda, Green

1 https://contraeldiluvio.es/2019/12/05/10-pilares-green-new-deal-para-europa/

2 https://static1.squarespace.com/static/5cb636ea93a63267f424e168/t/5d3087a5138f6f0001c0a177/1563461542410/GNDE+-+10+Pillars+of+the+GNDE+v2.pdf

New Dealek Europako baliabide ez-aktiboak zerbitzu publikoaren esku jartzen ditu, trantsizioaren karga herritar europarren gain jarri gabe.

## 3- HERRITARRAK ETA EUREN KOMUNITATEAK AHALDUNDU

Europako trantsizio berdea ez da goitik beherakoa izango. Herritarrak eta euren komunitateak ahaldundu behar dira euren etorkizuna eraikiko duten erabakiak har ditzaten.

Green New Dealaren oinarrien artean demokrazia dago. Mekanismo argiak eskaintzen ditu herritarren asanbladek eta tokiko gobernuek euren komunitate, udalerri eta eskualdeen garapenaren inguruan erabaki esanguratsuak har ditzaten. Halaber, bermatzen du, ahal den guztietan, Europako energia sistema berriak jabetza publikokoak izango direla eta modu demokratikoan kontrolatuak egongo direla.

Roosevelten Works Progress Administration bezala, Europarako Green New Dealek erakunde publiko berria sortuko du, herritarrek gidatu dezatela Europako trantsizio berdea.

Zehatz-mehatz, krisi klimatikoaren ondoriorik larrienak pairatzen dituzten komunitateek baliabide nahikoak eduki behar dituzte euren bizi-baldintzen narriadura zuzentzeko.

Green New Dealen oinarri demokratikoa lantokian ere aplikatzen da. Inbertsio berdeak sortutako enpleguek langileen eskubideak babestu behar dituzte eta enpresen gaineko kontrol handiagoa izan behar dute, langileek sortzen dutenaren balioa partekatu dezaten.

## 4- ENPLEGU EGOKIA BERMATZEA

Europarako Green New Dealek enplegu egokia eskainiko dio bilatzen duen orori.

Gaur egun Europa langabeziaren eta azpienpleguaren nahasketa batean murgilduta dago. Enplegu ezegonkorrek gora egin dute eta milioika pertsonek euren komunitateak utzi behar izan dituzte funtsezko beharrak asebetetzen dituzten enpleguak bilatze aldera.

Green New Dealek Europa guztiko komunitateetan inbertituko du ziurtatzeko inbertsio berdeak kalitate handiko lanpostu kualifikatu eta egonkorrak sortzen dituela. Modu horretan, herritar guztiek euren familiak mantendu ahalko dituzte, komunitateak atzean utzi gabe.

Horrez gain, emisio altuko industrietako langile guztientzako bidezko trantsizioa bermatuko du, baita enplegu ziurra, modu egokian ordaindutako trebakuntza aukerak eta etxebizitzak ere, behar dituzten guztientzat.

Green New Dealek zainketek gure ekonomian duten eginkizuna aitortu behar du behingoz. Horrela bermatuko da etxeko lanak zein umeen eta adinekoen zainketa lanak aitortu eta saritzen direla. Izan ere, gure sistema naturalak onera ekartzen laguntzen duten jarduerek funtsezko eginkizuna daukate gure ekonomian.

## 5- BIZITZA MAILA HANDITU

Europarako Green New Dealek oparotasun publikoa sortzen du, aberastasun pribatua beharrean. Xedea da kontsumoa ordezkatzea Europako komunitateentzat benetan garrantzitsua denarekin.

Green New Deal enplegu-bermea baino harago doa. Gure kontinentean bizitza maila handituko du hainbat modutan, osasunean eta hezkuntzan inbertsioak egiteaz gain, artean eta kulturan ere inbertituko da.

Erabiltzen ez diren etxebizitzak erabilera publikorako berreskuratuz, Green New Dealek etxebizitzaren arloan dagoen eta hainbeste pertsona etxe barik edo kaleratzeko arriskuan utzi dituen segurtasunik ezaren krisia jorratuko du.

Europako energia sareak berriz diseinatzen badira, isolamendu egokiarekin etxebizitzak modernizatuz eta guztiontzat garraio publiko garbia eskainiz gero, Green New Dealek bizitzaren kostua murriztuko du etxebizitza guztietan. Bioaniztasunaren galera gelditu eta kutsadura deuseztatzen bada, Green New Dealek komunitate guztiei aire garbi, ur geza eta tokiko erreserba naturalez gozatzeko aukera emango die.

Horrela, iraunkorragoa den ekonomian inbertituz gero, Green New Dealek astero lan egiten dugun ordu kopurua murriztuko du eta komunitateak parte hartu dezala esparru handiagoa eskainiko du.

Prozesuan zehar, krisi klimatiko eta ekologikoaren lehenengo ilaran dauden komunitateen kasuan, erresilientzia handitzen lagunduko da.

## 6- BERDINTASUNA SENDOTU

Green New Dealek finantziarizazioari aurre egiten dio eta berdintasuna finkatzen du Europako bihotzean.

Desparekotasun sozial eta ekonomikoak handiegia izaten jarraitzen du, bai herrialdeen barruan, bai herrialdeen artean. Azken lau hamarkadetan, aberastasunaren desparekotasuna gogor handitu da Europako herrialdeetan: goiko % 1ek beheko % 50ek bezainbeste hazkunde ekonomiko izan zuen.

Herrialdeen artean ere, bizitza-maila oso desberdina da, alde handia dago diru-sarrera, langabezia tasa eta kutsadurari dagokienez.

Bitartean, gure gizarteak geruzatuak daude arraza, sexualitate, genero, adin eta ahalmenen arabera, justizia soziala eta ongizate kolektiboaren aurrean hesi iraunkorrak sortuz.

Green New Dealek desparekotasunaren indarrei eraso egiten die eta gizarte berri solidarioa eraikitzen du. Roosevelten New Deal bezala, programak finantza-sistema berrikusiko du. Green New Dealek

bermatuko du inbertsio publikoek aberastasun publikoa eragingo dutela. Programak langa sozialak jarriko ditu erdigunean, gutxiengoen kontrako bazterkeria deuseztatu eta trantsizio ekologikoa denontzat inklusiboa izango dela ziurtatuz.

## 7- ETORKIZUNEAN INBERTITU

Green New Deal ingurumen-doikuntza programa bat baino gehiago da. Gure gizarteen etorkizunean inbertsio bat da, baita berriz ere imajinatzeko aukera bat ere.

Gure ingurumena suspertzeko, erabat berriak diren tresnak garatu behar dira: garraio publiko modu berrien eta eraginkorragoa den bateria bidezko biltegiratzeen bitartez, baita gure lurzorua indarberritzen duten nekazaritza jardunen eta gure basoak berriz hornituko duen basogintzaren bidez ere.

Hori dela eta, Europarako Green New Dealek ikerketa eta garapen ekimen bat barne hartzen du.

Teknologi arloan aurrerapen handienetarikoak gobernuaren ikerketa eta finantzazioari esker gertatu dira: Internetetik hasita, ukipen-pantailetara, erreakziozko motorretatik, espazio-ontzietara, GPStik, bilatzaileen algoritmoetara. Baina gure ekonomiaren egitura dela-eta, estatuak ikerkuntzan inbertitu eta arriskua gain hartzen duen bitartean, sektore pribatuak sari guztiak jasotzen ditu eta ia ez du zergarik ordaintzen bere irabaziengatik.

Green New Dealek bermatu behar du gizarteak modu zuzenean onura ateratzen duela tresna berrietan egiten dituen inbertsioetatik eta diru-sarrerak berrikuntza gehiago lortzeko inbertitzen direla. Halaber, lan-astearekiko mendekotasun soziala gutxitzeko hitza bete behar du.

## 8- AMAIERARIK GABEKO HAZKUNDEAREN DOGMA DESAGERRARAZI

BPGren hazkundea aurrerapen neurri nagusi gisa alde batera utzi behar dugu. Horren ordez, benetan garrantzitsua den horretan jarri behar dugu arreta.

Hazkunde ekonomikoaren obsesioa, BPGaren handiagotze gisa neurtua, klima eta ingurumen krisiaren faktore nagusietako bat izateaz gain, herrialdeei politika ekonomiko ausartegiak aplikatzera eramaten ditu, ingurumen kostuak eta kostu sozialak aintzat hartu gabe. Gainera, gure ongizate kolektiboaren neurri okerra da.

Green New Deala BPGren hazkunde infinituaren dogmatik harago joan behar da eta giza garapenerako neurri holistikoagoak hartu. Berdintasuna, ingurumena, zoriontasuna eta osasuna: hainbat adierazle gehitu behar ditugu Europako aurrerapenean egiten dugun ebaluazioan.

## 9- JUSTIZIA KLIMATIKOA BABESTEA MUNDU OSOAN

Ingurumen krisia mundu mailakoa da, beraz, Green New Deala ere horrelakoa izan behar da.

Europak mundu mailako ahalegin horren buru izateko ardura historikoa du. Bi mende baino gehiagotan zehar, Europako herrialdeek kutsadura erasotzailea eta baliabideen erauzketa sustatu dute, modu zuzenean beste herrialde batzuk kaltetuz. Europarako Green New Dealek ondare kolonial hori zuzendu behar du.

Baliabideak berriz banatu behar ditu gehiegi ustiatutako eskualdeak lehengoratu, itsasoaren mailaren igoeraren kontra babestu eta errefuxiatu klimatiko guztiei bizitza-maila egokia bermatzeko. Halaber, ziurtatu behar du Europako trantsizio berdea ez dela mugatzen kutsadura munduko beste leku batzuetara esportatzera, edo Hegoalde Globaletik baliabideak etengabe erauztera. Europako trantsizio energetikoa egiteko horniketa kateak justizia sozial eta ingurumen-justiziaren printzipioekin konprometitu behar du.

Hegoalde Globalari laguntza emateagatik harro egon arren, Europako korporazioek askoz gehiago ateratzen dute interesen ordainketa, baliabideen lapurreta eta soldata-arbitrajeen bidez. Mundu mailako trantsizio berdeari laguntzeko, Green New Dealek jardun ekonomiko esplotatzaile horiekin amaitu behar du eta, behingoz, mundu osoko komunitateen eskubideak errespetatu, mundu mailan ingurumen justizia egon dadila bidea eginez.

## 10- GAUR BERTAN EKITEKO KONPROMISOA

Green New Deal ez da esparru, itun edo akordio bat. Ekintza zehatzen multzoa da, gure helmuga klimatiko eta ekologikoetara azkar eramango gaituena.

Munduko herrialde guztiek 2016ko Pariseko Itunarekiko duten konpromisoa beteko balute ere, mende honetan hiru graduko berotzea jasango genuke, baita sufrimendu neurtezina ere emaitza gisa.

Hala ere, herrialdeak euren konpromisoak betetzetik gertu ere ez daude. Hauxe da daukaguna Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren esparruan, 30 urtetan zehar, mundu mailako negoziazioen ostean.

Green New Dealari esker, negoziazioetatik ekintzetara pasako gara. Ez da aldaketarako konpromiso politiko ahula. Ez da estatu parte-hartzaileek sinatutako paper zati bat. Ez da bilera aldeaniztuna edo saihestezina den eta jarraian datorren talde argazkia.

Green New Deal gizarteko alor guztiei zuzendutako neurri zehatz eta sinesgarrien multzoa da. Neurri zehatzen pakete bat da, hau guztia lortzea xede duena: ekonomia iraunkorrera trantsizio azkarra egin, gure demokraziak muga berrietara bultzatu, oparotasun partekatua sortu eta gure mugetatik harago mundu bidezkoagoa eraiki.

Hori baino gutxiago, ez da baliozkoa izango. ▮

---

* Dokumentu osoa *www.iparhegoa.eus* webgunean eskuragarri.

# «Konbentzituta gaude Elikadura Burujabetza aldaketa sozialerako ardatzetako bat denaz eta baita klima aldaketaren aurkako borrokan ere»



**Alazne Intxauspe**
EHNE eta Etxaldeko kidea

**ALAZNE INTXAUSPE ELOLA** (Andoain, 1984). Gizarte Zientziak eta Enpresa ikasi eta telebistan lanean hasi arren, bizimodua aldatzeko apustua egin, eta baserrira itzuli zen, aiton-amonen bidea jarraituz. EHNE eta Etxaldeko kide da.

**Klima aldaketa eragiten duen arrazoi nagusia isurtzen den CO2 kopurua da. Azken urteetan abeltzantza industrialak sortzen duen CO2 kantitatea izan dugu izpide, sarri abeltzantza bere osotasunean jarriz jopuntuan. Gaur egun nagusi den abeltzantza eta nekazaritza intentsiboak zenbaterako ardura dauka CO2 ixurien ugaritzean?**
FAO ren esanetan, giza aktibitateak sorturiko karbono dioxidoaren % 9 aren eragilea da abeltzantza sektorea. Harridura sortu zen, erakunde honek berak plazaratu zuenean abeltzantza industrialak garraio industriak baino %18 $CO_2$ kopuru gehiago isurtzen zuela. Dena delakoa izanda ere, argi dagoena da, nekazaritza eta abeltzaintza eta baita elikadura sistema agroindustrial honek erantzukizun handia daukala CO2-en ugaritzean besteak beste.

Errentagarritasunaren eta lehiakortasunaren izenean, ehunka behi, leku batzuetan milaka, Nafarroako Caparrosoko adibidea kasu, kanpoko larreak usaindu ere egin gabe nabe batean sartuta esnea ekoizteko ereduak ingurugiroan arazoak ekartzen ditu noski. Edo berdin milaka hektarea monolaborantzan ustiatzeak, ongarri kimiko, herbizida, plagizida eta gainerantzekoak direla tarteko. Berdin, Espejo inguruan Hispalux enpresaren bitartez eta Eusko Jaurlaritzaren bultzadarekin hidroponikoan jarri nahi dituzten 6 hektareatik gorako tomate produkzioak, 18 ra irits daitezkeenak eta lurrik gabe eta urteko garai batzuetan berogailuen laguntzarekin ekoitziko dutena. Elikagaiak munduaren alde batetik bestera milioika kilometro egiten dituztenean ere, dela kamioi, itsasontzi edo hegazkinetan sartuta, dagoeneko badaukagu nahikoa informazio konturatzeko horrek ez diola mesede handirik egiten naturari.

Hala ere, azpimarratzekoa da, elikadura sistema agroindustrial, azken batean kapitalista eta neoliberal honek ez diola soilik kaltea ingurugiroari ekartzen. Azken aldian denon ahotan dabil aldaketa klimatikoaren afera baina hortik haratago osotasunean dituen ondorio kal-

tegarriak aztertzea egokia da baita ere. Bestela, askotan, partzialtasunetan erortzen gara eta horrek ez digu osotasuna ikusten uzten. Alegia, arazoa errokoa dela, sistema honek ingurugiroan, arlo sozialean, pertsonen arteko berdintasunean, bertako ekonomian, burujabetzan, elikadura osasuntsuan, … denean duela eragin negatiboa.

**Klima aldaketak zer nolako eragina izaten ari da baserritarren egunerokoan eta biziraupenean?**
Baserritarra eguraldiaren baldintzapean jarduten denez, eragin zuzena du aldaketa klimatikoak gure egunerokoan eta biziraupenean. Gurean esaterako, aurten negurik ez du egin kasik eta horrek landareen ziklo naturalak aldatzea dakar. Larriagoak dira hala ere, munduko beste toki batzuetan, esaterako Espainiar Estatuan Levante aldean, izan diren txingor, euri jasa eta uholdeak, horiek uzta osoak galtzea ekar baitezakete, edo Aragoin izan diren elurteek hainbat ikuilutako teilatuak puskatzea eta ondorioz abereak galtzea ere ekarri baitu. Horrek baserritarrari emozionalkiz gainera ekonomikoki ekartzen dion kaltearekin. Zer esanik ez, mundu mailan gero eta maizago gertatzen diren ezbehar klimatiko larriez, esaterako lehengo urtean Mozanbike eta inguruak astindu zituen Idai zikloiarenak, non gehiengo handi bat baserritarra den eta ezer gabe geratu zen.

**Etxaldek behin eta berriz aldarrikatu du Euskal Herriko Elikadura Burujabetza gure biztanleriaren osasuna, lan eta bizi baldintza duinak eta lurrarekiko oreka lortze bidean besteak beste. Klima aldaketaren aurkako borrokan zein eragin izango luke elikadura burujabetzaren norabidean urratsak emateak? Klima aldaketaren aurkako borrokaren ardatzetako bat izan beharko luke?**
Konbentzituta gaude Elikadura Burujabetza aldaketa sozialerako ardatzetako bat denaz eta baita klima aldaketaren aurkako borrokan ere beraz. Elikadura Burujabetzaren bidean ematen ari garen urratsek nabarmen erakusten dute hori dagoeneko gainera. Esate baterako, Euskal Herriko hainbat herrietako eskoletako jangeletan bertako produktuaren alde egiten ari diren apustuak ematen dizkigu adibideetako batzuk. Oraindik bidea geratzen bada ere egiteko gero eta gehiago dira dauzkagun esperientziak. Eredu iraunkorrean eta bertan ekoizten duten ekoizleen elikagaiak gure eskoletako sukaldeetan erabiltzeak, alde batetik ingurunean eragiten du; bai garraioan distantzia txikiak egin behar direlako eta baita ekoizpen eredua iraunkorra eta sostengarria delako eta beraz natura errespetuz tratatzen duelako eta oreka aurkitzen duelako. Eragiten du baita ere gure jendartearen osasunean, haurrenean gehienbat kasu honetan, garaikoak eta freskoak diren elikagai osasuntsuez osatzen delako euren otordua. Aldi berean, badu eragina haur horien kulturan ere, bertako ekoizpenak zein diren, zein sasoitan ekoizten diren, nola ekoizten den, … ezagutzeko aukera baitute hainbat ariketa didaktikorekin. Osotasunean begiratzen badugu, eragiten du bertako ekonomian, baserritarrek zuzenean saltzeko aukera sortzen baita. Eragiten du baserritar horien duintasunean ere, polita da jakitea zuk mimoz ekoitzitako elikagaiekin elikatzen direla etorkizuna izango diren gaurko haurrak. Eragiten du burujabetzan azken batean, eskolako komunitatea ari baita erabakitzen baserritarrekin batera zer motatako elikadura nahi dugun, natura errespetatuko duena, osasuntsua, pertsonen lan baldintza duinak bermatuko dituena, bertako ekonomia bultzatuko duena,…

**Elikadura burujabetzaren eraikuntza, burujabetza ekonomiko eta sozialaren artikulaziotik ulertzen duzue. Nekazal sektoreez gain zer nolako aliantzak behar direla uste duzue zuen proposamen politikoa garatu ahal izateko?**
Aliantza zabala behar-beharrezkoa dela




sinetsita gaude eta ildo horretan lan egiten saiatzen gara bai gehiengo sindikalaren barruan, bai Euskal Herriko eskubide sozialen kartan, bai mugimendu feministaren baitan, bai pentsiodunen mugimenduarekin batera, …

Langile klasearen parte ulertzen dugu gure burua eta zentzu horretan ulertzen dugu langile klasearen batasuna beharrezkoa dela baldin eta aldaketa sozialerako bidean urratsak ematerik izango badugu. Era berean, gizarteko eragile ezberdinen artean artikulatzen asmatzeak indarrak batzea dakar eta eragiteko aukera gehiago ematen digu. Feminismoaren iturritik ere asko ikasi dugu eta ikasten ari gara, geure feminismo propioari izena eta izana jarri eta feminismoa ulertzeko beste modu batzuekin elkartrukatuz gogoeta asko mahaigaineratzen zaizkigu. Errotik aldatu nahi dugu sistema guk ere eta ez dago hau egiterik nagusi den patriarkatuari eta honen ondorioei erreparatu gabe. Ez litzateke integrala izango al-




« Arazoa errokoa da, sistema honek ingurugiroan, arlo sozialean, pertsonen arteko berdintasunean, bertako ekonomian, burujabetzan, elikadura osasuntsuan, ... denean du eragin negatiboa.

Langile klasearen batasuna beharrezkoa da baldin eta aldaketa sozialerako bidean urratsak ematerik izango badugu »

daketa. Eta pentsiodunez zer esan, erakustaldi ederra ematen ari zaizkigu, bai borrokan, bai antolaketan, bai konpromezu mailan.

Elikadura Burujabetzaren proposamen politikoa garatu ahal izateko, azken batean kontsumoa antolatu beharra daukagu. Alde batetik, informatuz eta argi hitz eginez, jendea ez nahastuaz. Argi jakin behar du jendarteak elikagai bakoitzaren atzean zer dagoen eta zer ari den bultzatzen eredu iraunkorrean eta tokian ekoitzitako elikagai bat erosiaz edo eredu industrialen ekoitzitako bestea erosiaz nahiz eta bertakoa izan , baserritarrari edo denda txikian erosiaz edo bitartekari handiei erosiaz, … elikadura osasuntsurako eskubidea aspaldi urratua dugu sistema agroindustrial honekin eta beharrezkoa zaigu eskubide hori bermatzea eta kontsumitzailea eta ekoizlea elkarrengana hurbiltzea eta elkar ulertzea. Horrek erakutsiko digu burujabetzarako benetako bidea, guk erabakitzeko aukera.

**Zuen aliantzak ordea ez dira mugatzen Euskal Herrira.**

Ez, mundu mailan ere antolatuak gaude, La Via Campesina izeneko mugimendu internazionalean, 1993an honen sorreraz geroztik. Munduko 81 herrialdetako 182 erakundek osatzen dugu mugimendua egun. Borroka ezberdinak batzen ditu: justizia klimatikoaren alde eta aldaketa klimatikoaren aurka, lurra lurraldea eta uraren defentsa, agrotoxikoen aurkako borroka, agroindustriaren aurkako borroka, trasnazionalen eta munduko merkataritza erakundearen aurkakoa, merkataritza askeko itunen aurkako borroka, indarkeria matxistaren aurkakoa, emakume nahiz gazteen aukera berdintasunaren aldeko borroka …

Esan dezakegu baserritarron eskubideen aldeko borrokan dihardeula mugimenduak arlo ezberdinetan eraginez eta aldi berean gizarte eraldaketa baterako borrokan ere bai. Langile mugimenduekin, emakume mundu martxarekin… elkarlanean aritzen gara mundu mailan ere.

Poema publicado en el
Boletín Nyeleni
num. 32 - Justicia Climática
https://nyeleni.org/

# un poema sobre justicia climática

Movimiento Campesino de Zimbabwe
(Traducción del inglés)

Oh! Oh! La Naturaleza llora, la Humanidad perece!
¿Por qué? Las estaciones han variado
¡Se han vuelto imprevisibles e inciertas!
¡Son más cálidas, más secas y más breves!
Los vientos y las tormentas son más rigurosos y destructivos
La madre Tierra llora, la tierra es estéril.
Las mujeres, los hombres y los niños, las plantas y los animales perecen!

¿Qué ha hecho la agricultura industrial capitalista?
En todas partes la Madre Tierra se derrumba
Y las semillas OGM tóxicas y nocivas hinchan el vientre de la tierra.
Máquinas pesadas pisotean el vientre de la tierra
sus columnas de humo negro contaminan el aire,
Han concebido y dado a luz a un niño, el cambio climático!

Oh! ¿Qué es todo esto?
Los nichos ecológicos se retraen
La biodiversidad desaparece a marchas forzadas
En todas partes crece la incertidumbre
Aumentando los riesgos que sufrimos los productores de alimentos
El conocimiento de la agricultura traditional se erosiona de prisa
¿Qué y quién nos salvará?

El cambio climático no conoce la paz,
¡Solo tiene hambre de destrucción!
¡La codicia lo alimenta!
¡Sus frutos son los fenómenos climáticos extremos, extremos, extremos!
¡Desastres medioambientales y humanitarios!
¡Inundaciones, sequias, corrimientos de tierras, enfermedades!
La humanidad grita: ¡No hay nada para comer!
La naturaleza grita: ¡Inhabitable! ¡Inhabitable!

¿Existe un remedio?
Sí, pero solo nos hablan de soluciones falsas!
Mercados libres, REDD, agricultura climáticamente inteligente,
Economía verde, agrocarburantes, mercados de carbono,
acaparamiento de tierras, más agricultura industrial,
Uso masivo de herbicidas, fertilizantes inorgánicos y más OGM!

¡Dios mío! Todo para hacer crecer el cambio climático! ¿Para qué?
¡Beneficios! ¡Beneficios! ¡Más beneficios! ¡Grita el capitalismo, padre de la criatura!

Pero la esperanza se vislumbra en el horizonte
¡la soberanía alimentaria, nuestra esperanza!
Llega para restablecer la justicia social para la humanidad,
La sostenibilidad ecológica para la naturaleza
La biodiversidad y la diversidad cultural para todos los pueblos de la Madre Tierra!
Levantaos pueblos, mujeres y hombres, sin tierra,
campesinos, agricultores indígenas, habitantes de los bosques y pescadores,

¡Haced oir la voz de la esperanza en todos los rincones del mundo!
Agroecología campesina para la justiciar climática AHORA!
¡Globalicemos la lucha! ¡Globalicemos la esperanza!